



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2025eko otsaila - 257 zkia.

Raul, «Kristinaren semea»

Olatuen kiribiletan jolasten

EGAÑA FRONTOIA, FRONTOIA ETA GEHIAGO • KALAPETATZEN IKASTEN (II)
RAMADAN GARAIA • EGIN NIREKIN EUSKARAZ • URTARRILEKO ALDAPA



Mutrikuko Udala

Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna



Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar)	943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsortzioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
----------------	--------------

Iritzixa

Arantza Ugarte Lopetegi «Oikia»

SATURRARAN

Saturrarán Memoria Historikoko leku berezi izendatu dute. Gernikan gerra ospitala izandakoa ere bai. Gernikako eraikina zutik dago. Saturraránen hutsunea dago. Hutsune handia eta hildakoei eskainitako eskulturak eta hildakoen zerrenda... baina nola lortu Saturraránera iristen diren pertsonek, han, 1938tik 1944ra kartzela egon zela eta sufrimentu handien lekuko izan zela jakinaraztea?

XIX. mendetik hona bizitako historian, aldaketa dezente izan dira. Hasieran bi baserri, *Saturrarán Zahar* eta *Barren-Errota* zeuden. Azkenak kare-errota zeukan. XIX. mende erdi aldera Mutriku eta Ondarroa lotzen zituen bidea berritu egin zuten eta errepide bihurtu. 1867an Elgoibarko Jose Errastiri, itsasoko ura erabiliz, bainuetxea eraikitze leku aproposa iruditu zitzaion eta lurra erosi ondoren *Grand Hotel Balneario* eraiki zuen. Orduan hasi zen Saturraránen garapena. *Barren-errota* ostatu bihurtu zen, *Barrenengoa* eraikina egin zuten, *Hotel Buena Vista* ere bai... Inguru guztia udatiarren leku bihurtu zen... *Barren-Errota*, gero, Hotel Astigarraga izan zen, Barrenengoa ostatu bihurtu zen, Grand Hotel Balneariori, beste eraikin bat erantsi zioten, *Villa Capricho*, eta itsasoko bainu beroak hartzeko leku bihurtu zuten... Turismoa puri-purian zegoen...

Bitsak bezala gora egin zuen lekua, ordea, modatik pasa eta gainbehera joan zen... 1921ean *Grand Hotel Balneario*ren azken jabeak, eraikina dohantzan eman zion Gasteizko Seminarioari. Gasteizko Gotzainak inguruko eraikinak erosi zituen eta Saturrarango eraikinak Seminario bihurtu ziren. Harik eta Francok estatu kolpea eman eta gerra piztu zen arte.

1936 urtean Saturrarango etxeak *Loiola Batailoiaren* kokaleku izan ziren hilabeteren batean, ondoren errepublikaren aldeko tropak pasa ziren, eta 1936ko irailaren amaieratik 1937ko udaberrira arte, eraikin guztiak Francoren tropek erabili zituzten tropa fazisten frontearen Santa Kutz gainean hasi eta Elgoibar alderaino kokatu zelako...

1937ko abenduan izendatu zituzten Saturrarango eraikinak emakumeentzako kartzela. «Prision Central de Mujeres de Saturrarán» izena eman zioten eta 1938ko urtarrilean iritsi ziren lehenengo presoak. Emakumeak ziren presoak, eta emakumeak, mojak, barruko zaintzaleak. Soldaduek egiten zuten kanpoko zaintza, bota berri duten *Katetxe* aldetik... Funtzionarioak arduratzen ziren ate handiko zaintza egiteaz eta kartzela guztiaren ardura Zuzendariak zeraman.

Epaiketa egindako emakumeak ekartzen zituzten Saturrarango kartzelara. 25 mojak 1.500 emakume inguru kontrolatzeko sistema zigorra zen. Zigorren helburua haxe: emakumeen izaera aldarazi eta esaneko bihurtzea. Horretarako erabiltzen ziren bitarteko guztiak zeuden justifikatuta: gosea, umilazioa, beldurra, preso erlijiosoa, tratu txarrak, eskarmentuak... Eta umeak, inongo zerrendatan agertzen ez diren umeak. Kartzela eta gero 1944tik aurrera, berriro Seminarioa egon zen Saturraránen 1968ra arte. Ondoren, eraikinak udaleku gisara erabili izan ziren. 1983ko uholdeek eraikinen zimenduak kolokan jarri zituzten eta Udalak lurra erosi eta eraikinak botatzea erabaki zuen.

Hutsune handia gelditu da Saturraránen. Horma zatiak, liburuak, dokumentalak, memoria egunak, ..., gertatutakoa bizirik mantendu nahia... Saturraránen gertatutakoak eskoletara eta herritarrengana iritsi behar du... Memoria gune finkoa eta ikusgarria behar du. Saturrarána iristen denak inpaktuen bat jaso behar du, han gertatu zena jakin eta memoriari gordetzeko.... Berriro gerta ez dadin.

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarteak
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus

Webgunea: www.kalaputxi.eus

Bloga www.kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga, Inhar Mutiozabal,
Jose Angel Lizardi

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua SS-787/01

ISSN 1579-4792

Inprimategia EUSKALINPRI

Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkaririk
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala



astelehenetik ostiralera								
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA							
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00			
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25			
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30			
Donostia	* 7:55	11:30	14:30	19:30	---	* Unibertsitatetik		
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO							
Donostia	8:00	11:00	* 14:30	18:00	20:30	* Unibertsitatetik		
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20			
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05			
DB04	ONDARROA - MALLABIA							
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45		
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55		
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15		
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.								
DB04	MALLABIA - ONDARROA							lanegun ostiraletan
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	* 22:05		
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15		
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30		
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)								
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA							
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40		
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10		
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU							
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10			
Deba ^{35 min. zain}	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40			
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25			
DB06	ONDARROA - SORALUZE							
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15	
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA							
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20	

larunbat, igande eta jai-egunak							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

ALKATEAK, AGUR

Mutrikuarrok:

Honen bidez zuengana hurbildu eta, azken urteetan herriko Alkate izateak hala egitea eskatu didalako, zuzenean jakinarazi nahi dizuet ondokoa:

Orain dela urtebetetik, 2024 urte hasieran osasun-gorabehera batek jota, hilabeteak eman ditut ezintasun egoeran. Hilabeteak aurrera egin ahala saiatu izan naiz betiko martxari lotzen, baina ezina nagusitu egin zaio nahiari.

Aldi luze baten udal jardunetik kanpo egon arren indartsu eta gogotsu itzultzea espero banuen ere, urtea bete denean gorputzak ez dit lagundu eta argi gorriak piztu dizkit. Horrekin batera, medikuen iritzi kualifikatuak ere kontuan hartu ditut egungo egoera sortarazi zidaten arrazoiak oraindik ere hor egongo daitezkeelako.

Hausnarketa luzea egin ondoren, Alkatetzan egindako ia hamar urteko ibilaldiari bukaera emateko erabakia hartu dut, osasunari lehentasuna emateko eta okerrera eginda dudan osasuna berreskuratzeko bidean jartzeko. Izan ere, Alkate izan denak ondo dakien moduan, Alkate izateak gure izatearen %100 eskatzen du, osasun betea eta indar osoa. Gaur egun, tamalez, ez naiz horien jabe, eta ez nuke egoki jardungo, ez herriarentzat, ez udalarentzat.

Ni egon ez naizen aldian Alkate-orde kargua ederki bete duen Ainhize Azpiaz Azkarraga izango da aurrerantzean gure Mutrikuko Alkatea, eta hurrengo bi urte eta erdian ere berak zuzenduko du Udalaren eta Mutrikuren etorkizuna. Bejondeiola!

Eta osasun egoerak alboratu nauen honetan, nik alboan jarraituko dut, udal langile postutik herriaren aldeko nire ekarpena egiten, eta, noski, ia hamar urtetan hartutako eskarmentua eta ikasitako guztia Alkate berriaren esanetara jarriko dut, albotik ere asko egin daitekeelakoan.

Alkate izateari utzita, gauza asko eramango dut gogoan, asko onak eta asko txarrak, baina harrotasunez gogoratuko dut beti Mutrikuko herriak hiru aldiz eman zidala herriaren gobernurako konfidantza. Zalantzarik gabe, herritar batentzako ohore handienetakoa.

Eta bukatzeko, herritarrok, uneren batean zerbait gaizki egin izan badut, zintzoki esaten dizuet: gaizki eginak barkatu eta ondo eginak gogoan hartu.

Joseba Palenzuela Arrieta

NARRUPE ELKARTEA

Urte berriarekin batera, Narrupe soziedadeak bazkide berrientzat ateak ireki ditu. Sarrera-kuotarik ez da izango, eta hileko kuota baino ez da ordaindu beharko. Interesatuta daudenek martxoaren 31ra arte dute aukera. Edozein argibide nahi bada, harremanetan jarri elkartearekin:

Instagramen: [@narrupe_elkartea](#);
emaillez: narrupeelkartea@gmail.com

Zuzendaritza taldea

ESKERRIK ASKO SANTA ESKALEEI

Beste urte batez irten gara aurten ere ia ehun lagun herrian zehar kantu eta koplakantari. Urtero, herriko talde edo eragile baten alde ateratzen gara Santa Eskean, aurten erraldi eta buruhandien konpartsa izan dugu lagun. Lau taldetan banatu, eta goizeko 09:00etan hasita zeharkatu genituen herriko auzo, kale, baserri, denda eta taberna.

Beste urte batez eskerrak ematea besterik ez dugu: egun guztia koplak bera lehen aldia balitz bezala kantatu zenuten kide guztioi, bazkariak eta afariak soziedadean hain goxo eta fin prestatu zenituztenoi, gaztetxeko kideei urteroko arreta eta harreragatik, erraldi eta buruhandiei prestutasun eta laguntza guztiagatik, trikitilariak bizkarra mindu arte musika sortzeagatik, poltsera eta poltseroei euren eginkizunari eusteagatik, auto gidariei esfortzuagatik eta koplariak isildu gabe egoteagatik.

Ea luzaro eusten diogun berrituz doan ohitura zahar honi. Bejondeizuela!

Mutrikuko Bertso Eskola

SINADURA BILKETA PENTSIODUNEN ALDE

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan sinadura bilketarekin hasiko gara, Legebiltzarrean aurkeztu eta pentsioen osagarriak diru-laguntzak onartu ditzaten.

EAEn pentsiodunen hirutarik bat ez da gutxieneko soldatara iristen eta eurentatik % 70 emakumeak dira, gehientsuenek hilero 850 € baino gutxiago jasotzen dutenak.

Egoera latz honen aurrean, gure nahia, asmoa eta gogoak Jaur-laritzak urteroko Aurrekontuetan dagokion diru osagarri hori jartzea da, guztiok gutxieneko soldata jaso dezagun. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata estatuan 14 pagako 1.134 € koa da eta hori da gaurkoz gure helmuga.

Horregatik, Mutrikun ere sinadura bilketari ekingo diogu, eta horretarako, igaro den urtarilaren 25-26ko asteburuan hasita, apirilaren 12-13ko asteburura arte, Goiko Plazan edo Beheko Plazan mahaia jarriko dugu. Sinatzeko eskubidea izateko, 18 urtetik gorakoa izan eta EAEn errolatua egon behar da.

Honenbestez, eskubidea duzuen guztioi dei berezia egiten dizuegu, mahaira hurbildu eta bakoitzak bere sinadura eman dezan.

Mila esker!


Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

EGAÑA ATERPEA



2001 urtean eraikitako pilotalekua.



2021 urtean Egaña pilotalekua estaltzeko proiektua idatzi zen.



2024 urtean lur kutsatuaren



Egiturarentzako zutabeak eta habeak deskargatzen.



Estalkiaren egituraren zutabeak muntatzen.



Estalkiaren egituraren habeak



Teilatuaren instalakuntzan erremateak egiten



Estalkia eginda, barruko lanak: ezker-horma, lurra, harmailak...



Kristalak instalatzen.



Egaña pilotalekua estalita.



Egaña aterpe berriaren inugurazioa: Agintariak eta Erraldoiak.



Frontoiaren irekiera: umeak

MUTRIKUKO TANATORIOA



Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Ziortza



ILEAPAINDEGIA

943945308 Jose Maria Alcibar 10 Ziortza_ileapaindegia

frontoi-erabilera baino gehiago



garbiketa egiten hasi zen.



Estalkiari eutsiko dioten zimenduak egin ziren.



ak muntatzen.



Estalkiaren egurrezko egitura muntatuta.



zestaz, gazteak eskuz eta palaz.



Egaña berrituta, lanak amaituta.



Lehenengo kultur ekitaldia: «Itoiz, udako sesioak»



Lehenengo kultur ekitaldia: «Itoiz, udako sesioak»

Industrias Egaña fabrika garrantzitsua izan da gure herriaren historian. Asko izan dira bertan lanean jardundako mutikuarak, beren familiarientzako irabazpidea bertan izandakoak. Metala lantzen jardunda egindako historia eraiki zuten.

Fabrikaren jarduna amaitu zenean, hirigintza interbentzio baten baitan, 2001 urtean, fabrika egon zen lurretan espazio publiko bat sortu zen eta bertan pilotalekua eraiki zen: Egañaneko frontoia.

Hasieratik frontoia estaltzeko nahia egon izan bada ere, 2025 urtera arte ez da asmoa gauzatu. 2021 urtean behin betiko proiektua idatzi eta marraztu zuen Inforlur injeniaritzak, zurezko egitura-soluzioen diseinuan espezializatutako Egoien enpresaren aholkularitzarekin, eta, horrela, udalean izandako ideia parerean marraztu zen. Horretarako, hiru jarraibide eman ziren: Inguruko etxebizitzetxei eragina minimizatzea, frontoiaren espazio osoa estaltzea, erabilera anitzetako espazioa sortzea.

Auzotarrekin proiektua partekatuta eta udal aurrekontuetan diruak baliatuta, esleipen prozesuan Unebide enpresak hartu zuen obra, 880.000 euroko aurrekontua izan duena.

Obra amaituta, mutrikuarrok erabiltzeko eta gozatzeko espazioaren erabilera arautu nahi da, estalitako espazioa frontoia baino gehiago izan dadin eta aukera guztiek lekua izan dezaten. Helburua, argia: ahalik eta mutrikuar gehienek erabili ahal izatea Egaña berritua.

Denborak eta ibiliak erakutsiko badute ere, frontoiko erabilerak, kirol erabilerak, aisialdi erabilerak eta kultur erabilerak bere tokia izango dute Egañan, ume, gazte eta helduen gozamenerako. Horretarako, Udalak estalpearen erabilera egokirako araudia prestatzen dihardu, araudi guztiak bezala, erabiltzaile guztien zentzuzko erabilera bada begiratu beharko ez dena. Ea, bada, txukun-txukun berritutako espazioa ondo zaintzen dugun!

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

zure negoziaren berri
mutrikuar guztiei emateko

KALAPUTXI

aldizkaria@kalaputxi.eus

«ESPERANTZARI LEIHO BAT»

Mutrikuko familiek martxoaren 15era arteko epea dute **OPORRAK BAKEAN** programan izena emateko eta adin txikiko saharar bat etxean hartzeko. Donostiako Aiete Jauregian eginezuten 2025eko programaren aurkezpenean, hainbat elkartetako kideekin eta harrera familiekin batera, euskal herritar orori deia luzatu zitzairen uztailaren eta abuztuaren beraien etxeetan ume saharar bat hartu dezaten, uda basamortutik eta errefuxiatuen kanpalekueetatik kanpo pasatzeko, alegia. 2024ko udan 188 haur etorri ziren Euskal Autonomia Elkartera eta horiei osasun arreta bermatzea lortu zen. Azken 15 urteotan 4.597 haur izan dira gure artean. Oporrak Bakean programan parte hartzea arnasmune bihurtzen da bai parte hartzen duten adin txikiko umeentzat bai haien familientzat ere. 2025eko udan, harrera-familiez gain, 4 aterpetxe ere izango dituzte; hiru Bizkaian eta berri bat Gipuzkoan. Familien garrantziaz gain, aterpetxeek elkar zaintza komunitariotik programa honi egiten dioten ekarpena ere azpimarratu zuten agerraldian.



RECYSMART: ABENDUA ETA URTARRILA

Mutrikuko Udalak eta Debabarrenako Mankomunitateak lankidetzen ezarritako RECYSMART proiektuak honako datuak utzi dizkigu abenduan eta urtarrilean:

Abenduko datuei dagokionez, 124 erabiltzailek guztira 4.180 ontzi arin birziklatu dituzte, hau da, 80 kilogramo. Ondorioz, 553 litro ur eta 166 kilogramo CO₂ aurreztu dira, azken hau 8 zuhaitzek xurgatzen dutenaren baliokidea izanik.

Puntuazioari dagokionez, guztira 44 erabiltzaile sartu dira zozketan. Saridunak, 180 punturekin Jon Antxustegi Urkiaga, 82 punturekin Irena Tsankova Tsvetkova, 70 punturekin Maria Pilar Beitia Alkorta, 63 punturekin Judith Soto Azkue eta 42 punturekin Rosa Maria Elordi Urreisti. Saridunei *Bertan merkatari elkarte*an gastatzeko 20 €ko bonua egokitu zitzaizen.

Urtarrileko datuei begiratuta, berriz, 120 erabiltzailek, guztira, 4.366 ontzi arin birziklatu dituzte, hau da, 78 kilogramo. Ondorioz, 463 litro ur eta 139 kilogramo CO₂ aurreztu dira, azken hau, 7 zuhaitzek xurgatzen dutenaren baliokidea izanik.

Puntuazioari dagokionez, guztira 38 erabiltzaile sartu dira zozketan. Honela, saridunak 207 punturekin Maria Isabel da Rosa Zabala eta 70 punturekin Olaia Urkiri Ibazeta izan dira. Saridun bakoitzari Mutrikuko produktuez osatutako saskia egokitu zaio.

Mila esker parte-hartzaile guztioi eta jarraitu horrela!



ZIENTZIA BADA NESKEN KONTUA GOIZEKO IZARRA IKASTOLAN

Zientzia, teknologia, programazioa, mekanika eta beste hainbat alorretan emakumeen parte-hartzearen datuak oso baxuak dira. Goizeko Izarra Ikastolak gai honekiko ardura eta kezka erakutsi izan du azken urteetan eta neskak zientzia eta teknologia mundura hurbiltzeko hainbat ekimen martxan jartzen ditu. Alde batetik, ohikoak bihurtu dira gure eskolan Euskal Herriko emakume zientzialariek elkarriketak, eta bestetik, azkeneko urteetan egin den bezala, aurtan ere STEAM astea antolatu da otsailaren 10etik 14ra bitartean. Astearen zehar Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleek zientzia, teknologia, ingeniari, matematika eta artearen mundu zirrargarrian murgiltzeko aukera izan zuten. Zientzia, Teknologia, Ingeniari, Arte, Matematika eta Ongizate emozionala sustatzea eta zabaltzeaz gain, neskek STEAM bokazioetara erakartzea eta emakumeek arlo horretan duten garrantzia nabarmentzea dira aste honetako erronka nagusiak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ikastetxera gerturatu eta gure egitarauan parte hartzera animatu zareten guztioi. Zuen parte hartzea ezinbestekoa izan da!



**MUTRIKUN ETXEA BEHAR DIRA ALOKAIKURAN HARTZEKO
ETXEA HUTSIK BADUZU ETA INTERESA BADUZU...**

Informatzeko eta etxea eskaintzeko: 635748393 · aldizkaria@kalaputxi.eus

AINHIZE AZPIAZU ALKATE BERRIA

Otsailaren 13an egindako Udalbatzaren ezohiko bilkuran Ainhize Azpiazu Azkarraga aukeratu zuten Alkate kargurako.

Azken urteetan izandako osasun-arazoak gainditu ezinik ibilita, azken hauteskundeetan mutrikuarrek Alkate aukeratu zuten Joseba Palenzuela Arrietak Alkate kargua utzi eta bere taldekideentzat zama ez bihurtzea erabaki zuen.

Azken urtean, Josebaren faltan, Ainhizek, Lehenengo Alkateorde izanik, Alkatearen funtzioak burutzen jardun du, eta karguaren obligazioak ez zaizkio berri gertatuko. Mutrikuarrek ere urtebetean ezagutu dute Alkate lanean, eta hurrengo bi urteetan Ainhizek gidatuko du herriaren norabidea.

Kalaputxiko atal honetatik zorterik onena opa diogu Alkate berriari. Bejondeiola!



HISTORIA ETA ONDARE ELKARTEA ABIAN

Urtarrilaren 31n Luardon egindako bileran eratu zuten «Mutrikuko Historia eta Ondare Elkartea». Elkartearen sortzeko ideia herriko eta inguruetak historiaren eta ondarearen inguruan bakarka, nor bere bidetik zebiltzan historiazale batzuk elkartuta sortu zen. Guztien ekina elkartearen mese-detan jarrita, helburua jarri dute urtean zehar egindako lana aldizkari batean jasotzea eta hori mutrikuarrei eskaintzea. Inguruko herrietan historiazaleek elkartuta egiten dute lan eta «Deba» eta «Ondarroa» bezalako historia iburuak argitaratzen dituzte dagoeneko. Elkartea osatuta, karguak ere izendatu dituzte, eta Jose Angel Lizardi Agirregomezkorta izango da Elkartearen Presidentea. Berarekin batera, zuzendaritza batzordeko kide izango ditu Josu Larrañaga Arrieta eta Alexander Idoeta Anakabe. Beraiekin batera, dozena bat lagunek jardungo dute lanean. Eta datozen guztiek ere bai.



MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartek hainbat jarduera antolatu ditu Debarbarrean, bazkide izan edo izan gabe doan, ohi duenez, baina aurretiaz izena emanda:

- **Dolu taldea** (familiakoentzat), otsailaren 20tik ekainaren 19ra, 12:00-13:30.
Ardantzakalea 11, Eibar.
- **Arnasketa tailerra** (gaisoentzat), otsailaren 26tik maiatzaren 14ra, 11:00-12:00.
Kenko zentroa. Estaziño kalea 8, Eibar.
- **«Nola hitz egin minbiziaz adingabeekin» hitzaldia**, apirilaren 3an, 18:00-19:30.
Ardantzakalea 11, Eibar.

Informazio gehiago, eta izena emateko: **943 45 77 22** eta gipuzkoa@contraelcancer.es



Eskertza

Duela gutxi hil den Adolfo Sotoren familiak
eskerrak eman nahi dizkizuegu une zail honetan
jaso dugun berotasunagatik, babesagatik eta samin-agurrengatik.
Bihotz-bihotzez eskerrak gure ondoan egon zareten guztioi.



ARRAUNEAN, LEHORREAN ERE TXAPELDUN

Aurreko urtean neska mutrikuar gazteak fin ibili ziren arraunean, eta Galiziara ere heldu ziren Espainiako txapelketa jokatzera. Aurten ere, lau batel bete eta finean ari dira batelen ligan, estropadak irabazi eta irabazi. Eta itsasoan bakarrik ez, lehorrean ere dominak irabazten hasi dira Juan Luis Elezgarai «Txaparro»k entrenatutako neskak. Donostiako Ur Kirolak klubaren instalakuntzetan joakatu zen otsailaren 16an 2025eko Gipuzkoako Ergometro Txapelketa, eta gazteen mailan neska mutrikuarrek txapeldun: Garazi Flores Moreda lehenengo postuan irabazle, eta Iraia Ituarte Catalan bigarren postuan txapeldunorde. Lehenengo bi postuetan mutrikuarrek, baina lehenengo hamarren barruan sei sartu dira. Garazi eta Iraiarekin batera, Irene, Haizea, Udane eta Lea bikain aritu dira aurkari oriotarren, donostiarren eta hernaniarren aurrean. Aurtengoan, bandera gehiago ekarriko dituzte herrira gure neskek. Bejondeiela!



SALGAI

ANSORREGI oinetakoak · BERISTAIN liburu-denda · SABINA janari-denda · KABE janari-denda · APARRA jantzi-denda · Turismo bulegoa

Mutriku eta mutrikuarrek ARGAZKITAN II

KALAPUTXI Mutrikuko Udala

berria

ARGAZKI ZAHARREN LIBURU BERRIA

«Mutriku eta mutrikuarrek argazkitan II»
Liburua 20 eurotan salduko da honako establezimenduetan:

- Ansorregi zapata-denda (Erdikokale)
- Aparra jantzi-denda (Beheko plaza)
- Beristain liburu-denda (Goiko plaza)
- Sabina janari-denda (Goiko plaza)
- Turismo bulegoa

HERRIAN EROSTEAK OPARIA DAUKA

Ainhua Goikoetxea, Maria Jesus Larrañaga, Gregorio Arreitunandia eta Malen Pazos izan ziren Bertan Elkartek Gabonetan egin-dako zozketan sarituak. Herrian erostea bilatzen dute egiten diren kanpainen, baina elkarteko ordezkariak adierazi dutenez, herrian urte osoan eta egunero erostea da helburua, herria denon artean eta egunero eraikitzen dugulako.



ALAZNE OPTIKA

Jose M^a Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

Camping **Galdona**

JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria

eguneko menua
daukagu

Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU


FURIOSA

Pertsonajiak ematen dixue pelikula bati bere indarra. Beurakin batea mobitzen gea istorixan zihar, beurakin batea bizi eta sentitzen degu. Zenbat eta errealo izan pertsonaje bat, orduan eta sinesgarriko izango da transmititzen digun sentimendua. Film honetan, protagonistian begiak beiratzia besteik ezto, sentitzen deuen amorrua igartzeko.

Fury Road izan zan maisu-lanan ostian, atzea egingo degu, Furiosan umetako bizipenak arte. Bere bizitzatik indarrez ateata, etxea bueltako bidai luze bat hasiko deu, biolentziaz betetako mundu apokaliptiko batian. Bidian zihar oztopo asko aurkitxuko ditxu, edozein kostuta biziraun nahi doan jende zitalan eskutatik.

Akzioz betetako film honen atzian hainbat sentimendu ezkututzen dia, eta horrek indar haundixaua ematen dio eszena bakoitzai. Zuzendaixak eskarmentu handiz fintzen ditxu alderdi tekniko nahiz artistikuak, eta malko eta ahots berriak gehitzen ditxu oandala berrogeta sei urteko formula berera: hondarra, motorra eta odola.

«Akordatzin nerekin?»



FITXA TEKNIKO

Izenburua: Furiosa

Zuzendaritza: George Miller


Gidoia: George Miller, Nick Lathouris

Argazkia: Simon Duggan

Aktoreak: Anya Taylor-Joy, Chris Hemsworth, ...

Urtea: 2024 **Iraupena:** 148 min

Kim Ji-young, nacida en 1982 Cho Nam-joo



Liburu honetan Kim Ji-youngen bizitza kontatzen da 1986tik 2016ra arteko tartean. Tarte horretan askotariko bizipenak izango ditu protagonistak, baina gehienek gauza bat dute komunean: emakume izate hutsagatik jasandako zapalkuntza.

Umetatik helduarora arte. Bere anaia gazteak, mutil bakarra izateagatik, janari gehiago, espazio handiagoa edota tratu berezia jasotzen ditu familiako kideen aldetik. Eskolan, neskek janzteko arau zorrotzak dituzte, mutilek ez bezala. Unibertsitatean, ikasle taldeetako zuzendaritza postuetara iristeko ezintasuna izango dute neskek. Lan-munduan emakumeek zailtasunak izango dituzte enpresetan sartzeko, zer esanik ez hierarkiaren barruan goiko postuak lortzeko.

Kim Ji-youngen amak, berataz haurdun zegoenean, neska bat espero zuela jakin zuenean disgustua jaso zuen.

Ji-young haurdun gelditu zenean eta neska zela jakin zutenean, mundu guztiak animoak eman zizkion. Jaio aurretik ere neska izate hutsagatik emakumeak zapalkuntza jasaten zuen lehen eta jasotzen du orain Hego Koreako gizartean.

Eleberri honetan fikziozko lerro artean nolabait ezkututzen diren egiak agertzen zaizkigu. Emakumeak gizarteko hainbat esparrutan duen rola inguruan hausnartzera bultzatuko du irakurlea, eta hasiera batean zertxobait urrun gelditzen zaigun Hego Koreako errealitatea gurearekin alderatuz gero, ondorio interesgarriak atera daitezkeela iruditzen zait. Emozioak azaleratuko dira irakurketa honetan: frustrazioa, haserre, amorrua. Izan ere, «mundua erabat aldatu da, baina arau txikiek, itunek eta ohiturek berrituz gabe jarraitzen dute. Mundua ez da horrenbeste aldatu».



Raul, «Kristinaren semea»

OLATUEN KIRIBILETAN JOLASTEN

Hamar bat urte zituenetik erakartzen zioten olatuen gainean ari ziren surflariek eta orduak igarotzen zituen haiei begira. Aukera izan zuenean bodyboard-eko taula merke bat lortu eta hasi zen jolasean olatuekin. Soinketako irakaslearen eraginak kirol horrekin maitemintzea ekarri zuen. Txapelketetan parte hartu, eta, egun ere, jarraitzen du lagun batekin olatuen bila joaten, Kalbariko Jatetxeko asteburuko lanak libre uztean. Zezenen adarrei ere ez dio muzin egiten.

Izenburuan «Kristinaren semea» jarri nahi izan duzu...

Bai. Ez dugu edo ez gara ohitu aurrez-aurre maitasun hitzak adierazten benetan maite ditugun hurbilekoei. Deitura galdetzean otu zait horren ordeztu hori jartzea. Berak atera gaituelako aurrera, eta benetan eskertuta nagoelako egin duen esfortzuagatik. Beraz, aukera dudak honetan, publikoki esan nahi dizut ama: Maite zaitut!!!

Zer kontatu nahi diguzu zure haurtzaroz?

Neure burua uste dut beste askoren antzekoa izan dela. Beste lagunak bezala, atari inguruan jolastu, hazi ahala jolas esparru hori zabaltzen joan, okerkeriak adin bakoitzari dagozkion mailan, eta horren parean ikasketak egitera eskolara. Lehenengo urteak Samielan eta hamabi urterekin instituturara, eta Zumaiara. Zerbait azpimarratzekotan Lugk nire lagunarekin batera olatuekin jolasteko grina izan zen, gaur arte iraun duena.

Noiz eta nola hasi zineten taula gainean olatuekin jolasten?

Lehenengo besteei begira igarotzen genituen orduak eta orduak. Halako baten, taula merkeenetako batekin jabetu nintzen eta Alkoleara joaten ginen, Lugk surfeko taularekin, eta ni bodyboard-koarekin lehenengo urratsak ematera. Hasierako

saio haietan oinetako hegatsik —aletarik— gabe ibiltzen nintzen. Poliki-poliki eta epe luzean joan nintzen hornitzen hegatzeko eta neoprenoazko jantziz, horrela urte guztian uretan ibiltzeko moduan, eta esparrua ere Debako hondartzara zabaltzen genuen. Hala ere, jauzi kualitatiboa institutuko DBH-2an izan zen. Soinketako irakaslea zarautzitarra zen, Dani Txoperena, surf-zale amorratua, eta ni inoiz klasera goizean olatuetan ibili ondoren taula eta guzti joaten nintzenez, laster sortu zen gure arteko harreman berezia.

Itsasoari begira bizi zen hura, eta egun batez «gaur olatu ederrak zeudek» esanda agurtu gintuen. Ausardia pixka bat jarri eta ea uretara joateko asmorik zuen, eta, hala bazen, ea berarekin eramango gintuen galdetu genion. Horrela ezagutu genuen Zarautzko hondartza, baita pila bat ikasi ere. Eraman eta ekarri egiten gintuen bere furgonetan, eta gu gustura baino gusturago.

Lagunak, baina, alde egin zuen herritik ikasketak tarteko...

Bai. Hura kanpora eta ni Zumaiara. Kurtsoko lagunarekin ezagutu nuen olatu txukunak izaten duen Itzurungo hondartza. Baina Ondarroako Arrigorri hondartzan egin nituen koadrila ederra

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U

ERAIKETAK



Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 beheka - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

—lagun asko ibiltzen dira bodyboard-ean—, eta gaur egun ere hura da nire gune maizena. Han botatzen ditugu ordu mordoak gozatzen eta baita hotza pasatzen ere, baina gustura.

Bodyboard kontuaz ari zara, baina esango al diguzu nolako taula den eta nola erabiltzen duzuen?

Neurri ezberdinak dituzte erabiltzaileen gorputzaren arabera, metro erdi bat zabalean eta metro bat pasatxo luzeran. Polipropileno edo antzeko materialez eginda dago eta «paypuak» edo «kortxoak» deitzen zaie haren antza dutelako. Barneko errefortzuak, ertzak eta ezberdintasun ezberdinek eragina dute taularen kalitatean, eta, jakina, prezioan ere hogeitahamar eurotik hirurehun ingurura arte. Halako baten, Gabon bueltan amak oparitu zidan kalitate oneko taula, eta maiteminduta nago berarekin amaren oparia delako. Gaur egun ere bera erabiltzen dut, nahiz eta beste hiru ditudan, lehiaketan irabazitakoak bi.

Erabilera arruntena taula gainean etzanda izaten da, besoak eta hankak taulatik kanpo izanik, igeri egiteko lehenak eta lema bezala erabiltzeko bigarrenak. Beste posturak belauniko eta zutik dira, baina gutxiago erabiltzen dira. Egiten diren maniobrak airean egiten dira tuboa izan ezik.

Taularekin batera hanketako hegatsak dira lagun eta gorputza tenperatura hotzetik babesteko neoprenoak jantzia.

Eta zeintzuk dira olatuak lagunduta egiten dituzuen maniobra edo jukutriak?

360°ko bira ezkerrera, «revers» 360°ko bira eskuinera, «rollo» 360°ko bira bertikalean, «ARS» (*air rollo spin*) bira osoa eta laurden bertikalean, «bacflip» mortala atzeraka, eta, gehien maite duguna, «tuboa», olatu barnean urez inguratuta. Sentsazio berezia da. Ez zait inoiz ahaztuko Elorriagan —Deba eta Zumaia artean— nola iraun nuen zazpi bat segundo uraren magalean bildurik.

Noiz hasi zinen bodyboard-eko txapelketetan parte hartzen?

Ondarroako Arrigorri hondartzan lagun asko biltzen ginen, eta 2017an geure arteko txapelketak antolatzen hasi ginen —ez nuen sekula irabazi, baina askotan izan nintzen lehen postuetan—. Behin eztena sartuta, Euskal Herriko txapelketetara aurkezte hasi ginen, Sopela, Bakio eta Itzurungo hondartzetan ospatzen ziren, baina oso maila handia zegoen, eta parte hartzera besterik ez nintzen iritsi.

Kantabria alderako bidea hartu nuenean Suances-eko «Playa de los locos» hondartzan lortu nuen lehenengo txapelketa. Bi lehiaketatan hartu nuen parte, irekian eta 18urte azpikoan, bietan arerio gogorra tokatu zitzaidan, munduko proba irabazita zetorren galiziar bat, aurrez-aurre jokatu genuen eta bietan irabazi nion. 18 urte azpikoetan lortu nuen nire lehen garaipena. Taula berria eta garaikurra opari!

Beste zenbait txapelketatan ere parte hartu izan dut, eta Castro Urdiales-ko Miaño hondartzan atera nintzen garaile, ordukoan 21 urte azpiko lehiaketan.

Nola antolatzen dira txapelketak?

Zozketa bidez lau ko taldeak osatzen dira. Ordu erdiko denbora

ematen da gehienez hamabi olatu harrapatzeko. Aldi bakoitzean bik jarraitzen dute aurrera. Epaileek puntuaketa ematen dute, egiten diren maniobra edo jukutriak baloratuz, baita horien burutze maila kontuan hartuz.

Gaur beste etapa baten zaude...

Bai. Asteburuetan lana egiten dut gure Kalbarioko Jatetxean, eta astean zehar aukera dut olatuekin jolasteko. Pandemia denboran Alkoleara joaten nintzen, eta han aurkitu nuen surf egiten Pikupen bizi den larrabetzuar bat. Orduan hasi nintzen surfeko taula hartzen olatuek ez zutelako ematen bodyboard-ean gozatzeko adina. Lagun handiak egin gara, eta, urtebetera, «zodiak» bat erosi genuen Sakonetara joateko, han daudelako guretzat olatu egokienak. Ordura arte oinez joaten ginen Debatik trenbidean zehar; laburrago, jakina, itsasoz. Surfean egiten dugu —5 taula eskuratu ditut—, baina inoiz ahaztu gabe bodyboard-eko taula. Denborarekin «zodiak» a sei metroko ontzi batez ordezkatu dugu, eta, olaturik ez dagoenean, txibiak harrapatzen ere saiatzen gara. Kaitik sartu-irten gehien egiten duen txalupa izango da gurea.

Asteburuetakoa lana aipatu duzu. Zer diozu horretaz?

Amak etxeko tabernan egin izan du lana urte askotan. Zelaieta Jatetxearen ardura ere hartu zuen ordezkatzeko lanean —orduan zaletu nintzen zezenekin—, eta azkenean 2017tik Kalbario Jatetxearen ardura darama. Hemezortzi urte nituen jatetxean lan egiten hasi nintzenean, eta gaur arte. Zerbitzari-lana da nirea, nahiz eta amari ere esku bat bota beharra dagoen gauza errazetan, eta, jakina, txukuntze lanetan.

Jai egunetan eta asteburuetan soilik irekitzen dugu, ostiral eguerditik igande arratsaldera arte. Hontara iritsi garenez, eskerrak eman beharrean gaude gure bezeroei, urte guztian lana ondo egitera behartzen gaituztelako. Normalean jatetxea beteta edukitzen dugu, eta uda aldera baita kanpoan jartzen ditugun mahaiak ere. Gure menua erretegi batekoa da, baina bezero gehienek eskatzen digutena guk «Kalbaixoko menua» deitzen dioguna da: urdaiazpikoa, zainzuriak, zapoa, txuleta eta gerokoak. Otsail osoan itxita edukitzen dugu.

Zezenak ere aipatu dituzu...

Horren errua ere amari ematen diot. Zelaietan lanean zegoela, kapera ondoan itxitura bat jartzen zuten eta Korostola baserriko bigantxa bolaztatuak jarri jolaserako. Hor sartu zitzaidan harra, eta sokamuturzale naiz. Azpeitiara noizbehinka eta Falces-eraino ere iritsi naiz, ez gehiagorik.



Raul podiumean, Suancesen irabazita

APALLU ITURGINTZA

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustín, 3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es

ELORRETA

ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA



Asier Lersundi 680 579 961
Kepa Martínez 617 842 004

San Agustín, 4B
MUTRIKU

Tel./Faxa 943 60 43 97
elorretaeraiketak@gmail.com

Kalapetatzen ikasten (II)

Lanbide zaharrak desagertu ahala, ofizio horiei lotutako jakintzak eta hitzak ere badoaz. Baina, oraindik ere bada gure herrian kalapeteroen misterioak buru-bihotzetan gordeta duenik. Jakin-mina baduzu, zatoz gurekin Intxirri aldera, zatoz itsasontziak karenatzen eta kalapetatzen ikastera. Itsasora begira bizi zirenen sasoi hartan, lan horiek ezin ziren edozelan egin: detailerik txikiak ere kontuan hartzen zituzten, ur-azalean segitzeko, itsas hondora joan gabe.

Kalapeteroek, aurrekoan ikusi genuen bezala, itsasontzi azpi-etako junturetan iztupa —*estopia*— edo kotoia —*algadoia*— sartzen zuten, itsasontzian urik ez sartzeko. Barku berriak *kalapetatzen* zituzten bezala, zaharrei ere errepasoa eman behar izaten zieten. Azken horietan egiten ziren lanak ekarriko ditugu hona.

Intxirriko mingaina

Mutrikun beladun txalupa-handiak Asturiasa joaten ziren garaian, urtero, karenatu egiten zituzten. Itsasgora aprobeztatzuz, idien laguntzarekin, Intxirri aldameneko hegale baten zegoen *arranplara* edo *mingainera* igotzen zituzten, bertan ontzi-azpiak konpontzeko.

Aspalditik erabili izan da leku hori itsasontziak karenatzeko. 1782ko maiatzaren 26an, esaterako, arrantzaleen kofradiak mingain hura konpontzeko eskaera egin zion udalari, itsaso zakarrak hondatuta zuelako: *la lengüeta que sirbe de carenarero [carenadero] para las chalupas, necesita de alguna composicion*. Handik urte batzuetara (1798), berriz ere konpontzeko premiarekin ei zegoen: *que se componga la lengüeta que sirbe para subir y bajar las lanchas en las ocasiones que se carenan*. 1783ko urtarrilaren 12an kofradiak, euria zenerako, estalpe bat egiteko eskaera egin zuen: *un cubertizo que es yndispensable, asi para el resguardo de la jente como para dar carena a las chalupas quando lluebe*. Udalak onartu egin zuen eskaera.

Karenatzeko itsasontzi asko zirenez, eta lan hartarako leku zabalgooa izatearren, gerraurrean, *Mollaberritik* igerileku zaharrerako tartean, *arranpla* handi bat egiteko proiektua egon zen. Obrak hasi ziren, eta betelanak ere bai, hainbat harri eramanda. Baina gerrak erdibidean utzi zuen proiektua. Itsasbeheran, obra hartako maistrak ikus zitezkeen. Sasoi batean, arrantzaleek betelan edo *relleno* haren harriak eramaten zituzten itsasora, *majuran-*

—eta, arrainak sareetara bideratzeko.

Karenatzen

«Karenatzea» eta «istinkatzea» (*kalapetatzia*), berez, ez da gauza bera. Lehenengo hitzak ontzi azpiko konponketa guztiak hartzen ditu; bigarrena, berriz, oholetako junturen artean *estopia* edo *algadoia* sartzera mugatzen da.

Karenatu hitza latinezko *carinare* aditzetik dator, eta azken horrek *carina* 'gila' du oinarrian. Hori jakinda, erraz ulertuko dugu ekintza hori izendatzeko euskal kostaldean erabiltzen den beste forma hau: *gila konpondu*.

Itsasontziak lehorrera ateratakoan, lehenengo zeregina azpian oteak jartzea izaten zen. Baserritarrek Kalbariotik ekartzen zuten ote hura, gurdiz. Ote hari su ematen zioten, itsasontzi azpia «erretzeko». Orduko itsasontziek, pinturaren orde, brea izaten zuten azpian, eta suak bigundu eta urtu egiten zuen brea. Suak beste funtzio bat ere betetzen zuen: entablazioan egon zitekeen «zizare barrenaria» edo *gomia* (*Teredo navalis*) izeneko moluskua hil egiten zuen.

Kalapetatzeko erremintak

Kaskoa erre eta gero arraskatu egiten zuten, *arrasketaren* laguntzarekin, eta istinkatzeko edo *kalapetatzeko* prest utzi; izan ere, zati askotan *estopia* berri egin behar izaten zen. *Estopa* zaharra kentzeko «gubia» izeneko erreminta ere erabiltzen zen.

Kalapetatzea, esan dugun bezala, oholen arteko junturetan *estopia* sartzea zen. Lehenengo eta behin *estopia* prestatu egin behar izaten zen; sasoi baten *estopia* txirikordatu (*trentzau*) eta alkitranetan bustitzen (*alkitranau*) zuten. Azken urteetan prestatuta eskuratzen zuten; halakoxea zen Bartzelonatik ekarritako *estopa alkitranaua*.

Kalapetatzeko, ezkerreko eskumuturrean biltzen zuten *estopia*, eta bi atzamarren muturrekin hartzen zuten punta junturan sartzeko. Esku berarekin erabiltzen zuten *kalapetatzeko trintxia*. Trintxa ezberdinak zeuzkaten. Erabiltzen zuten lehenengoa *trintxa zorrotza* zen, junturak zabaltzeko erabiltzen zena, *ahua* zabaltzeko. Ondoren, trintxa lodiagoa erabiltzen zen, iztupa barrura sartzeko. Azkenik, *retakatzeko* —edo sakatzeko— *trintxia* erabiltzen zuten. Edozelan ere, ontzi eta juntura bakoitzak trintxa jakin bat eskatzen zion: *juntia zelakua dan, halako erremientia sartu bihar*. Odriozola errementariak egiten zituen kalapetatzeko trintxak.

Kalapeteroak mailu berezia izaten zuen eskuineko eskuan: *kalapetatzeko mazetia*. Egurrezkoa eta luzexkara izaten zen, tornuan egindakoa. Burua arte egurrezkoa (*artia*) izaten zuen eta kirtena, berriz, akazia egurrezkoa (*alkazixa*). Alderdi bietan uztaiak zituen, *topian arua, gaiñetikan ez zeixan apurtu*. Dena dela, Zumalabean erabilitako azkenengo mazetak Gineako egurrez (Elondo) egindakoak izan ziren.

Itsasontzi handietako junturetan *estopia* sartzen zuten (bajurako barkuetan, txalupa handietan...); enbarkaziotxikietan, berriz, kotoia (*algadoia*), bai bateletan, bai potiñetan...



Intxirriko mingainean ontziak kalapetatzen.



Pintxeak

XX. mendean, Mutrikun, ez zegoen kalapetero lanetara mugatzen zeni; itsas arotzak ziren tarteka *kalapetatzen* jarduten zutenak.

Arotz- edo kalapetero-mutlei Mutrikun, beste lanbideetakoei bezala, *pintxiak* esaten zieten. 14 urterekin hasten ziren lanean. Euren lehenengo egitekoa iztupa preparatzen ikastea izaten zen: *estopia neurrixan ipiñi, neurri baten, zelako barkua halako neurrixa. Lehelengo lana estopia egitxia. Jarri estopia belaunian, eta gero egitxen giñun pelotia, ta pelota harendikan gero eskuturrian jartzen giñun estopia batuta.*

Gazteek, jakina, ofizialengandik ikasten zuten, ikusiz eta eginenez: *estopia preparauta baldin bazauan jartzen ziñan ofizialen onduan, ematen zizuen leziua zela egin.* Teoria gutxi orduan, eta praktika asko!

Beste lan asko bezala, hura ere gogorra ei zan: *gogorra, ia! goizian hasi ta illuntzera arte, taka-taka jo bihar! postura txarrian igual.* Baina bistan da ez direla oroitzapen txarrak, azalpenak ematean begietan halako distira berezia sortzen zaie-eta.

1945. urte inguruan egunean 3 pezeta kobratzen zuten, *eta astian 21 pezta, domeka goizian lan eginda.*

Txispoia, brea emateko

Behin ontzi-azpia kalapetatuta, azken urteetan junturetan *masillia* ematen zitzaion eta gaineratik patentea edo pintura. Baina, lehenago, txalupa-handietan eta gabarretan, esaterako, zuzenean brea ematen zitzaion. Brea hutsa eman gabe, «gran berniz» edo seboarekin nahastuta erabiltzen zuten. Poto edo ontzi batean berotu

eta nahasten zuten, eta likaren antzera geratzen zen nahasketa.

Egur edo palu bati ardi- edo ahari-larrua josten zioten, eta hura erabiltzen zuten lika itxurako hura zabaltzeko brotxatzat. *Txispoia* esaten zioten brotxa hari Mutrikun. Berotutako breatan busti eta kasko guztian zabaltzen zuten.

Erdaraz «escopero» esaten zaio brotxa horri. 1848an Mazaudier eta Lombard ingeniari frantsesek ezin zehatzago definitu zuten: *cuando la brea está bien líquida é hirviendo, se sumerje en ella un palo, llamado escoper, cubierto en el extremo con piel de carnero, en la que adhiriéndose la brea sirve como de pincel para la colocación de ésta.* Mutrikuko dokumentazioan «chispón» gisa agertzen da (1559-1640). Izen asko eman zaizkio gure kostaldean: *txispoia* (Ondarroa, Mutriku, Zumaia), *krispoie* (Bermeo), *krispoia* (Orio, Hondarribia), *lanbasa* (Zumaia, Pasaia, Hondarribia), *bria emateko brotxa* (Getaria).

Ez dakit zein den *txispoi/krispoi* hitzaren etimoa, baina gure herrialdetik kanpo ere antzeko izendapenak dauzka tresna horrek: batetik, Asturiasen (Cudilleron eta Candasen) *bispón* esaten zaio; eta, bestetik, XIX. mendeko frantsesezko hiztegieta *guispon* izenez agertzen da.

Udalaren barkuak konpontzen

Mutrikutik Debara joateko zubia egin aurretik barkua zegoen herri batetik bestera pasatzeko, *barco del pasaje*. Bi udalek ordaintzen zituzten erdibana barkuaren konponketa eta mantentze lanak.

1764. urtean, besteak beste, hauek erabili ziren: 2 arroa brea; 6 libra iztupa, *estopa traída de Renteria*; 6 libra sebo eta 3 karga ote. Hiru kalapetero ibili ziren lan hartan, *tres oficiales galafates en dos dias a 10 reales.*

1768. urtean, berriz, beste hauek: *medio barril de alquitran, 29 libras de brea, 3 libras de grasa, una carga de leña, 2 libras de estopa, argoma para dar fuego al barco...* Arotz batek bi egun eman zituen kalapetatzen.

Barku horren ardura izateaz gain, Mutrikuko udalak portuko obrak egiteko erabiltzen ziren ontzien konponketak ere bere gain hartzen zituen. Eta herriko lanetarako beste itsasontzirik egotekotan (Debatik hondarra ekartzeko, edo Arbetik harria) haren konponketak ere udalaren diru-kutxatik ateratzen ziren.

1559. urtean obretarako materiala garraiatzeko itsasontzia karenatzeko (*carena de la chata*) 36 libra iztupa erabili ziren (erreal erdia/librako); *estopia* bihurritzearen erreal bat gastatu zen, *por torçer un real; un cuero para un chispon; un quintal e medio de brea; otras 10 libras de estopa que hize traer de Deba...* Bertan 8 kalapeterok lan egin zuten bi egunez.

1565. urteko lanetan, berriz: *61 libras de estopa, 22 libras de grasa de balena, un cuero de carnero para chispones, por el daño de la caldera por cinco dias que trabajamos en coser la brea...*

1735ean, portuko obretarako gabarra karenatzeko lanetan hauek erabili ziren: bi kintal eta erdi brea, 27 libra iztupa, eta arroa bat iztupa, *una arrova de estopa que se trujeron de Sn Sebastian, bi gurdikada ote, dos carros de argoma, todo para la gavarra, 14 libras de grassa, tres libras de sebo...*

1769. urtean 16 erreal eta 2 marabedi gastatu zituen udalak portuko lanetarako barkua karenatzen, *de costte una carena que se dio a la lancha con inclusion de la brea, sebo y estopa necesarias.*

Azken apunte bat. Mutrikun familia batek ezizenean darama lanbide zahar horren testigua: *Kalapeteronekuak*. Kalapeteroneko taberna ere egon zen Portu kalean, «Aizabia» soziedadea dagoen lekuan.



Kalapetatzen, iztupa entablazioko junturan trintxaz sartzen.

RAMADANA

espiritualtasuna, komunitatea eta hausnarketa garaia

Kristautentzat Gabonak eta Aste Santua dira jai garrantzitsuenak, eta —seguruenez lehen orain baino gehiago ospatzen baziren ere— modu berezian ospatzen diren sasoia dira. Aspaldian gure artean handitzen ari den komunitate islamiarrak Ramadana du aldi garrantzitsua, eta beren jaiak horren inguruan antolatzen dituzte. Aurten otsailaren 28an eguzkia ezkututzen denean hasi eta martxoaren 30ean eguzkia argitzen duenera arte luzatuko dena. Duela lau urte Mutriku bizi den Junaid pakistandarrarengana jo dugu aldi horretaz gehiago jakitearren.

Noiz heldu Pakistandik? Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Duela hamabi urte erabaki nuen Pakistango nire herritik irtetea bizimodu hobeago baten bila. Lehenengo Londonera joan nintzen, eta ondoren Azpeitiara joan nintzen. Azpeitian ileapaindegi batean jardun nuen lanean, baina pandemiaren sasoian lanik gabe geratu nintzen. Berriz ere lanean hasteko modua egon zenean, Mutriku neure bizartegia ipintzea erabaki nuen. Azpeitiatik Mutrikura aldatu eta hemen nabil, emaztearekin eta bi seme-alabekin, azken bi urteetan mutrikuar umeen, mutil gazteen eta helduen orrazkeraz arduratzen. Oso gustura gaude Mutriku, bai lanean bai bizitzen. Alaba ere hasita dago euskara ikasten eta bere laguntxoekin... Gustura gaude.

Zer da Ramadana? Zer ospatzen da Ramadanean?

Ramadana egutegi islamiarreko bederatzigarren hilabetearen izena da, eta Islamaren bost oinarrietako bat da. Barau egiteko, errezurako, hausnarketarako eta komunitatearentzako garaia da. Hilabete hau amaitzen denean Eid al-Fitr izeneko jaia ospatzen dugu, eta hori bai, hori islamiarrontzako jai berezi eta garrantzitsua da.

Noiz hasiko da?

Zuen egutegiaren arabera urtero aldatzen da Ramadana. Gure hilabeteak ilargiaren zikloekin antolatzen dira, eta 29 edo 30 egunekoak dira. Hortaz, zuen egutegiari begira,

urtero hamar bat egun aurreratzen da Ramadana aurreko urteko datarekiko. Aurten otsailaren 28an hasiko dela aurreikusten da, baina hori Saudi Arabiako Emirrek baieztatu arte ez dakigu.

Udan edo neguan gertatu, aldea izango da...

Pentsa ezazu! Udan goizaldeko 6:30etan eguzkia aterata eta ia 22:00ak arte ezer jan eta edan gabe hilabete oso batean bizitzea... Neguak gauzak bestela dira: 8:30 aldetik 17:30ak arte errazago egiten da baraua egitea. Eguna laburragoa, tenperatura ere beste bat...

Zeintzuk dira Ramadaneko bereizgarriak?

Beste hilabeteetatik berezi egiten duena zera da: Eid al-Fitr gure egun haundiaren aurreko prestaketa garaia izatea. Hilabete osoan zehar honakoei jartzen diegu arreta berezia:

Baraua (Sawm): Eguzkia irten eta ezkututzen den bitartean ezin dugu jan, edan, erre edo harreman sexualik izan. Baraua espiritualki garbitzeko eta Alarengana hurbiltzeko modu bat da.

Errezua (Salat): Ramadanean zehar, urte osoan eguneroko bost errezualdiez gain, gauean mezkitan Ramadanean bakarrik egiten dugun Tarawih errezua egiten dugu.

Coran liburuaren irakurketa: Mahoma profetak Coran liburua Ramadan hilabetearen amaitu zuenez, hilabete horretan irakurri, hausnarketa egin eta Corana ikasteko aprobeztatzeko dugu.

Karitatea (Zakat): Hilabete honetan zehar islamaren oinarrietakobaten karitateak garrantzi berezia hartzen du, eta denek, nork bere ahalmenaren arabera, gutxien dutenentzako eta behar handiena dutenentzako ekarpena egiten dute, bakoitzak duen dirutzaren %2,5 hain zuzen ere.

Gaukootorduak (Iftar eta suhoor): Eguzkia gordetzen denean iftar deiturtako ootordua egiten da, datilaketa ura jan-edanda, Mahomakegin zuen moduan. Eguzkia sortu aurretik suhoor ootordua egiten da, barauari hasiera eman aurretik.

Hausnarketa espiritual: Ramadana hausnarketarako, autokontrolerako eta hobekuntza pertsonalerako

LEA-ARTIBAI

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960

Mug: 659 879 268



POTERO

943 60 36 43

Barrenkale 9 - Mutriku



garaia da. Musulmanek gaiztakeriak baztertzen dituzte, gezurrak edo esamesak adibidez, eta errukiorragoak, umilagoak eta esker onekoagoak izaten dira.

Baraua betetzetik salbuespenak egiten dira kasu batzuetan; adibidez, umeek, gaisoek, haurdun dauden emakumeek edota bidaian daudenek baraurik egin beharrik ez dute, baina salbuespenerako zirkunstantziak aldatutakoan, urteko beste sasoi batean bada ere baraua burutu behar dute.

Eta baraua amaitzen denean, egun haundia.

Ramadana amaitzen denean, esan bezala, *Eid al-Fitr* jaia ospatzen dugu, barauaren amaiera ospatzeko. Eguna errezo bereziarekin hasten dugu mezkitan elkartuta, eta nahitaez eman behar zaio errezuaren aurretik limosna bat txiroei edo beharra duenari beraiek ere jai hori ospatu ahal izan dezaten.

Egunean zehar lagunei eta familiakoei bisita egiteko ohitura dago, eta beraiekin bazkari ederrak egitekoa. Berritzearen eta ospatzearen sinbolo gisa jantzi berriak janzteko ohitura dago. Egun honetan umeak oso pozten dira, urtean zehar jasotzen ez duten propinak eta gozoak jasotzen dutelako batean eta bestean.

Baina Ramadan hilabetea amaituta, bi hilabete eta

hamar egun beranduago *Eid al Adha* egun haundia dugu, Bildotsaren jaia deritzona. Egun horretan Jaunari zor diogun obedentzia hartzen dugu gogoan, eta ondasunak besteekin partekatzearen garrantzia. Egun horretan bildotsa erosten dugu eta hiru zati berdinean egin. Lehenengo zatia etxeko familiarekin jaten dugu; bigarren zatia hurbileko familiari eta lagunei banatzen diegu; eta hirugarren zatia gutxien dutenei eta beharra dutenei ematen diegu.

Mezkitan erreztazeari garrantzia ematen diozu; inguruan non duzue mezkita?

Gure mezkita zuen parrokia da. Zuek kristau-taldea elizan batzen zareten moduan, gu musulman-taldea mezkitan batzen gara. Zuek apaizarekin, gu imamarekin. Zuek Biblia jarraitzen duzue, guk Corana.

Mutrikutik hurbil Deban eta Ondarroan ditugu mezikita. Debakoan Marokoko emirra dago, eta Ondarroakoan, senegaldarra. Batera edo bestera joan daiteke, azken batean Coranaren irakurketa bera izan behar da. Mutrikun bizi garen musulmanak bi horietara joaten gara norma-lean.

Nola bizi duzue Ramadana nagusiki kristaua den komunitatean?

Mutrikun ez dut inoiz entzun arazorik izan denik erlijioaren kontuagatik. Errespetu haundia somatzen dugu gurekiko, ezin dut besterik esan. Gure ohiturak eukita, inori ez diogu kalterik egiten, eta gure komunitateak arazorik gabe elkarrekin bizi direla ikusten da. Gazteei begiratzea besterik ez dago. Eta hori gauza ederra da.

Pakistatnen egon ala hemen egon, ze alde?

Espiritualtasuna norberak garatu behar duenez, ekintza indibiduala da, edonon egonda ere. Hala ere, Pakistanen bizi nintzenean, egun osoko giro bat zegoen herrian, eta errazago betetzen genituen bete beharrekoak. Adibidez, kaleko megafonia erabiliz erreztatzeko deia egiten da han, eta errezoak eurak ere megafoniatik bideratzen dira. Kanean ere komunitatean gaude, eta errazagoa da dena. Hemen, normala denez, mezikitara joan behar dugu komunitatean erreztatu nahi badugu.

Eskerrik asko, Junaid, emandako azalpenengatik. Laster Ramadanean sartuko zaretenez, hobeto ulertuko dugu zuen egunerokoan egingo dituzuen gauzak. Elkarren ondoan bizi izanda, elkar ezagutzen ere ikasiko dugu.





Keyla Vias. Bolivia.
Piper jatetxea, Mutriku.



Ansou Senghor. Senegal.
MFT taberna, Mutriku.

Egin
nirekin ere
euskaraz!



Marcos Rocha. Brasil.
Razkin janari denda,
Etxarri Aranatz.




Narcisa Farcas. Errumania.
Bizi Nahi taberna,
Ibarra.



Michele Abrego. Mexiko.
San Agustin taberna,
Azkoitia.

Euskaldunak gara Amin, Ansou, Narcisa, Rizwan, Keyla, Marcos, Maurizio, Guina, Jennifer, Daniel, Michele eta Valeria.

Aljerian, Senegalen, Errumanian, Pakistanen, Brasilen, Bolivian, Sardinian, Uruguain, Mexikon, Nikaraguan eta Euskal Herrian jaio gara, besteak beste.



Marcos Rocha. Brasil.
Razkin janari denda,
Etxarri Aranatz.



Amin Boumediene.
Aljeria.
Amaiur taberna, Tolosa.



Valeria Medina.
Nikaragua.
Illati taberna, Zaldibia

Bizi, berri, Ibarra, Lekeition, Larrabetzun, Etxarri Aranatz, Mutriku, Lezon, Azkoitia, Arbizu eta Zaldibia bizi gara, baina gainerako udalerrri euskaldunetan ere hamaika Amin, Jennifer, Valeria edota Keyla ditugu gure artean, zorionez.

Arabiera, wolofera, errumaniera, urdua, portugesa, sardiniera edo gaztelera jaso dugu etxean. Euskara, beraz, ez da gure lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dugu, eta euskaraz aritzen gara bezeroekin.

Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten digute gainerako herritarrek. Eta ez zaigu gustatzen. Euskaldunak garelako. Badakigulako euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen diguten bakoitzean zubia ere ukatzen zaigulako.

Gu euskaldunak gara. Beraz,

egin gurekin ere euskaraz!
egin nirekin ere euskaraz!



Maurizio Faedda.
Sardinia.
Aralar taberna, Arbizu.



Jennifer Cardenas.
Nikaragua. Tiñelu taberna,
Lezo



Daniel Fernandez. Uruguai.
Gazteku taberna,
Larrabetzu.



Rizwan Ali, Jon. Pakistan.
Bizi Nahi taberna,
Ibarra.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

URTARRILEKO ALDAPA

neure buruarekin elkarriketa

Gaua luze egiten da Bilbon. Baita Donostian edo Gasteizen, suposatzuten dut. Etxetik urrun gaude, baina gela txiki batean sartuta, ikasketak agintzen duen erritmoan murgilduta. Bihotza ere gelatxo txiki batean sartzen dugu, eta buruari eragiten diogu. Urtarrila beti izan da hilabete astuna, gizartearen 'Grinch' ugari dauden arren, gabonen lilura ahaztea ez delako ataza erraza.

Mutrikutik kanpo ikasten dugunontzat eta heldutasunerako bidean gaudenontzat, are gogorragoa izan ohi da hilabete hau. Geure buruarekin bakarriketa ugari izaten ditugu, urteko azken eta lehen astean planteatu ez ditugun auzietan arreata jarritz, berriro mundu errealerat itzuliz. Gabonetako atsedenen ondoren, azterketen garaia abian da, eta askotan, ez dugu prest egoteko denborarik ere izan. Motxila egin, autobusa hartu eta bat-batean errealtate gordinera salto egiten dugu. Apunte artean galtzen diren gazteak gara, kafearen indarrak bizirik dirautenak.

Txuletaren zein jamoiaren zaporea ahazten hasi berri gara, ardoaren usaina faltan hartzen dugu, eta benetako ikara begi aurrean jartzen zaigu: Agian azken gabonak ospatu ditut amonarekin. Anaiarekin eta lehengusuekin barre egin nahi dut azkeneko aldiz. Nire txakurra berriro laztandu. Gurasoen begien distira berriro ikusi, denok batuta gaudenaren seinale. Osabaren txisteak ez zaizkit hain txarrak iruditzen jada, eta atxonak oparitutako galtzerdiak goxotasunez jantzi ditut gaur goizean. Itzuli egin nahi dut. Bakarrik nago berriro ere.

Urtarrileko aldapa ez da soilik akademikoa. Garraio publikoan ematen ditugu egunak, goiz jaikita eta berandu lokartuta, egunak letra eta zenbakien artean emanda. Guztiok ez daukagu zorte hau, jakina. Lehen munduko arazoak dira, eta EHU ikasten aritzea izatez opari handia da. Baina gure arazoak dira, gure beldurrak. Herrikoak. Benetakoak.

Badakigu honek guztiak heldutasunera bideratzen gaituela, erronka honek gure bizitzaren lehenengo heldutasun probak direla. Gure etorkizuna geuk erabaki behar dugu, gure ametsak gauzatu nahian. Eta hemen nago, neure buruari galdezka. Hau al da benetan nahi nuena? Honetarako etorri al naiz Bilbora? Kazetaritzatik bizi ahalko naiz? Lagunak, bikotea, familia, txakurra, itsasoa... Denbora inbertsio honek zertarako balioko dit, beraietaz ez banago guztiz gozatzen?

Zalantzak ez dira bakarrik azterketak gainditzearen ingurukoak, baizik eta bizitza honetan nire bidea nolakoa izango ote den pentsatzekoak. Eta herriko gazteetan pentsatzen dut. Zenbatek galdetuko duten gauza bera, zenbatek sentituko duten hau. Baina gure bidea da, eta gure eskuan dagoen guztia egiteko prest gaude, nahi dugun bizitza izateko. Noski, gauza asko ez daude gure eskuetan, eta Mutrikun izandako gaztaroa agian iraganeko memoria huts bilakatzen da; baina hori guztia barnean eramango dugu betiko. Gure zati bat da.

Mutrikuko kaleen hotza, baina herriko jendeak ematen dion berotasuna ez dugu hemen aurkitzen. Etxeko babes, familiaren lasaitasuna edo lagunarteko barreak faltan sumatzen ditugu. Azterketa egunak bakardadean pasatzen ditugu askotan, eta, aldi berean, pisua ordaindu behar, bizitza aurrera atera, eta etorkizuneko lan mundurako prestatzen hasi.

Errealtatea gordinagoa da krisi ekonomikoaren, alokairu garestien eta beka eskasen testuinguruan. Buruan milaka zalantza: lana izango dugu ikasketak bukatutakoan? Kanpora joan beharko dugu aukera profesional on baten bila? Mutriku, kuadrilla, familia... atzean utzi beharko

ditugu?


Eta beldurrak, asko eta askotarikoak. Ez bakarrik gure etorkizuna nolakoa izango ote den. Baita buruari eustekoak ere. Askotan hitz egiten da gazteon antsietateaz, baina gutxi hitz egiten da benetan gure gogoetaz. Gizarte honetan, psikologoarenera joatea ere luxu bihurtu da. Ikasleen ondoreza gero eta handiagoa da, eta hori ez da kasualitatea: hezkuntza-sistemak eskatzen diguna eta emateko gai garena askotan ez datoz bat, ezta lan munduak exigitzen duena. Batzuetan errudun sentitzen gara, nekatuta egoteagatik, nazkatuta egoteagatik, negar egin nahi izateagatik.

Eta orduan, neure buruari buelta ematen diot. Nola bilatu lasaitasuna errealtate honetan? Gauza bakarra egin dezaket: pausoz pauso jarraitu. Lagunekin hitz egin, emozioei tokia eman, neure buruarekin zorrotzegi ez jokatu, eta, batez ere, bakarrik ez nagoela gogoratu. Eta neure buruari behin eta berriz errepikatu. Gau luze hauetan ez dut nire borroka bakarrik bizitzen. Beste gazte askok ere gauza bera sentitzen dute. Guztion osaben txisteak ditut buruan. Guztion anaien barreak. Guztion amen besarkadak. Eta horrek indarrez betetzen nau. 20 urteko ikasle baten zalantzei aurre egitea ere badagoelako, noski.

Urtarrila ez da bakarrik azterketa garaia, geure buruarekin hitz egiteko garaia ere bada. Bidean jarraitzen dugu, esfortzuaren bidez, gure tokitik urrun. Zeren eta, nahiz eta Bilbon, Donostian, Gasteizen edota Euskal Herritik kanpo ikasi eta bizi, gure bihotza beti Mutrikun dago. Etxean. Eta akaso, horixe da gehien motibatzen gaituena: etorkizuneari, noizbait, etxeak ematen digun beroa eraikitzearen itxaropena. Mutrikun edo beste leku batean. Baina segurtasun eta poz hura berriro sentiaraztea.

Eta bidean, bizitzaz ikasten jarraitzea, gure beldurrak eta ametsak eskutik hartuta. Zelako garai polita unibertsitatean ikastekoa. Zelako naturala beldurrak izatea eta ametsak betetzeko bizi ematea. Azterketek emandakoa baino ikasketa gehiago barneratzen ari gara, hori ziur. Liburu eta letrez haratago doazenak. Gureak.

Eneko Erraiz Amado



....ZORIONAGURRAK....



EINAR

Kantari Kantari Kantari
Zorionak gure Einarri!!!
4 urte haundi!!!
Matxo haundi bat aita,
ama eta bereziki Maddin
partez!



JON

Kantari Kantari Kantari
Zorionak gure Atxitxeri!
Matxo erraldoi bat
danon partez!
Bereziki, Ander, Maddi,
Eneko eta Einar!!



LORENA, CARMEN eta IBAN

Zorionak gure etxeko txikixai eta amona Carmeni!
Otsailian urtiak beteko ditzuzue hirurok eta
jasoizue matxo haundi bana! Ederki ospatuko
degu!




JOAKIN

Zorionak!!! Jarraitxu
holako perstona on,
ator, eskuzabal eta
zoriontsua izaten
Asko maitxe zaitxugu!



MARKEL

Martxuan 3an, 7 urte
betetzen dezu!!
Ederra jaixa! Famili eta
lagun giruan Ospatuko
deu txokolatada eder
batekin. Muxu potoluenak
Maialen eta Oierren partez!



LIER

Zorionak txapeldun!
9 urte haundi ein
ditzuzu dauaneko!
Jarraitxu beti bezain
jator! Asko matxe
zaitxugu.



ARANTXA eta ITZIAR

Zorionak ahizpa bixoi! Ospatzeko plana
ipini eta gu joango gara, erregalo eta
guzti!



PAULE eta JOL

Zorionak! Zuen hirugarren eta
zortzigarren urtebetetziak pozez
ospatuko ditzugu.
Muxuak zuentzat!



AMEI

3 kandelatxo biztu ta...
Zorionak! Etxekuen
partez. Matxe matxe!



LEA

Zoixonak Bixotza!!
Segi betiko morun
gure egunak alaitzen.
Matxe zatxuau infinito!

HARPIDETZAK 2025

Mutrikutik kanpo bizi den lagunen bati Kalaputxi bidali nahi dionak hemen
du aukera. Hamaika aldizkari urtean.

Kalaputxira bidali beharrekoak (aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera edo
Ansorregi oinetako dendan sobre batean sartuta):

NORK ESKATZEN DUEN

Izen-abizenak eta telefonoa (e-posta ere bai, nahi bada)

NORI BIDALI NAHI ZAION

Izen-abizenak, helbidea, posta kodea eta herria.

ORDAINAGIRIAREN KOPIA

Jarraiko kontu zenbakian dagokion kopuruaren ordainketa egin izanaren
ordainagiriaren kopia.

Laboral Kutxa ES70 3035 0188 91 1880017087

(Titularra: Karenka Komunikazio Elkartea)

Hego Euskal Herria eta Estatu, 15 euro; Europa, 30 euro; Mundua, 50 euro

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

ansorregi oinetakoak # aldizkaria@kalaputxi.eus # whatsapp 635748393

BERISTAIN

PAPERDENDA ETA ESTANKOA

Barrenkale, z/g
943 60 35 44



Kalbaixo
JATETXEA

Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa

Orgazki Zaharrak



Samielako neska dantzariak, 1970 urte aldera

Atzeko ilaran: Beatriz Txurruka, Jaione Ozkorta, Karmele Andonegi «Zapatero», M^a Angeles Arreitunandia «Kalala», M^a Paz Urkiza, M^a Angeles Egia «Maxantin», Arantza Ulacia eta Rosa Lezertua.

Aurreko ilaran: M^a Mila Mendizabal, M^a Jose Mendizabal «Moeno», M^a Jose Iparragirre «Pikuatxiki», Lurdes Illarramendi, Lurdes Urkiza, Nerea Ituarte, Lurdes Andonegi «Goxarri» eta Juncal Lezertua.



Bailableak Beheko plazan, 1925 urtean



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

OTSAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
			20 Burgoa	21 Zalduegi	22 Zalduegi (1)	23 Zalduegi
24 Lon Apraiz	25 Lon Apraiz	26 Lon Apraiz	27 Lon Apraiz	28 Lasuen Ele		

MARTXOA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

					1 Lasuen Elez	2 Lasuen Elez
3 Zalduegi	4 Zalduegi	5 Zalduegi	6 Zalduegi	7 Burgoa	8 Burgoa (2)	9 Burgoa
10 Lasuen Ele	11 Lasuen Ele	12 Lasuen Ele	13 Lasuen Ele	14 Lon Apraiz	15 Lon Apraiz	16 Lon Apraiz
17 Burgoa	18 Burgoa	19 Burgoa	20 Burgoa	21 Zalduegi	22 Zalduegi (1)	23 Zalduegi

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00

Larunbat goizetan 09:30-13:00

Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392

Lon Apraiz.....630 055 097

Hiart Burgoa (Deba)667 338 890

Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00

Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30

Isasi 31, 20600 Eibar

OTSAILA

28 · Zabel Erakusketa: Bollologia. Euskal Herriko bolleron mugimenduaren genealogia bisual bat, 1977-2010

INAUTERIAK

OTSAILAK 28, barixakua

16:00 Ikastolatik hasita Pikomelatos eta Banda Txikiren kalejira Ondoren, Beheko plazan karaokea eta dantzaldia

MARTXOAK 1, zapatua

12:30 Beheko plazatik hasita Dantza taldea, Txistulari taldea eta Akordeoi taldearen kalejira

17:00 Miruaitz frontoian Mozorro Lehiaketa Arima Dance taldearen eskutik

17:30-19:00 Inauterietako mozorro festa Gaztelekuan (2009 eta 2012 bitartean jaiotako gazteentzat)

19:00 Miruaitz frontoitik hasita Pikomelatos eta Bandaren kalejira

20:00-00:00 Beheko plazan Disko festa

MARTXOAK 2, domeka

17:30 Egaña frontoian Pontx Pailazoaren "Denok plazara ikuskizuna

MARTXOA

28 · Zabel Erakusketa: Bollologia. Euskal Herriko bolleron mugimenduaren genealogia bisual bat, 1977-2010

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·

· Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·

Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2025

otsailak 21

otsailak 21 · apirilak 25 · ekainak 20 ·
abuztuak 8 · urriak 17 · abenduak 19

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan



Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
martxoko aldizkarian
argitaratzeko
martxoaren 7rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2025

- Otsailak 23** Sagardotegia (Burumendi MT)
- Martxoak 23** Urkiola – Leintz Gatzaga. (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea
- Apirilak 6** Landa – Ozaeta (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea.
- Maiatzak 18** Sunbilla – Mendaure – Sunbilla (Aurrera MT)
- Ekainak 1** Arnoko XIX. Mendi Ibilaldia (Burumendi MT)
- Ekainak 15** Brinkola – Biozkornia – Arantzazu. (Burdinkurutz MT)
- Uztailak 6, 7 eta 8** Pirinioak
- 7 > Sallent – Musales – Ibon del Respumoso – La Sarra – Sallent
- 8 > Sallent – Pazino – Escarrilla.
- Irailak 7** Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)
- Urriak 19** Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)
- Urriak 26** Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako Ibilaldia (Burumendi MT)
- Azaroak 16** Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)
- Abenduak 14** Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

BERTAN

Mutrikuko Merkatarien Elkartea

... zure alboan

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

KIROPODIA, PLANTILAK,
AZTERKETA BIOMEKANIKOA,
KIRURGIA, KIROL PODOLOGIA,
OIN DIABETIKOA...

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behe, Deba



PODOLOGIA KLINIKA BERRIA DEBAN



CÓNDOR

Arrain kontserbak



ZIZO BILLANTE HNOS. S.A.

Mijoa Industrialdea, P-21 · 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) Tel.: 943 60 31 41 Fax: 943 60 44 39

E

12.00.566/SS
C.E.